

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bakioko Udala****Ibilgailuak norbanakoen finketara eta garajeetara herriko lurrak zeharkatuz sarteagaitiko eta urteteagaitiko tasaren errolda.**

Ibilgailuak norbanakoen finketara eta garajeetara herriko lurrak zeharkatuz sarteagaitiko eta hareetatik urteteagaitiko tasa ordaindu beharrean dagozan udalerrri honetako herritarrei jakinarazoten jake ordaintzeko borondatezko epea zabaldu dala, beti be 2018ko Alkatetzaren otsailaren 5eko Dekretuaren bidez 2017ko udal pasabideen tasa horreen Errolda onetsi eta gero. Horrela bada, ostean ageri dira ordaintzeko modua, epea eta tokia.

Eta hori guztia 15 asteguneko epean jendaurrean ezarri da, zergapekoek aztertu eta, egokitzat jotzen badabe, erroldaren aurkako beharrezko erreklamazioak egin daiezan.

Iragarkia, jakinarazo dala ulertu behar izango da, Dirubilketari buruzko martiaren 26ko 3/86 Foru Arauaren 125. artikuluaen 21. atalean ezarritakoaren arabera.

ORDAINTZEKO TOKI ETA MODUAK**1. Borondatezko ordainketa**

- a) *Epea*: 2018ko otsailaren 26tik martxoaren 26ra, biak barruan.
- b) *Ordaintzeko tokia eta modua*:
 - Helbideratu bako erreziiboak: etxeetara bialdu diran orriak BBK edozein bulegotan aurkeztu ahal izango dira.
 - Helbideratutako erreziiboak: Banketxe zehatz baten bitartez ordainketa egiteko agindu daben zergadunen kasuan, erreziiboa zordunduko jake horretarako ezarritako kontuan.

Orriak jaso ez edo orriak galdu badira, udal bulegoetara jo beharra dago.

Orriak hartu ez izanak ez dau esan gura ez dozula ordainketa egin behar.

Zergadunek aurrezki kutxetan eta banketxeetan helbideratu daiekez euren erreziiboak.

2. Betearazpidea

Borondatezko ordainketako epea amaituta, derrigorrezko epea automatikoki hasiko da, %5eko gainkargua ezarriz. Premiamenduzko erabagia jakinarazoten danetik hila-bete bat igarota, gainkargua %20koa izango da eta, horrez gain, borondatezko epea amaitu zanetik berandutze-interesak eta legez eskatu daitekezan kostuak gehituko dira. Ordainketa udal bulegoetan bakarrik egin ahal izango da.

Errekurtsoaren aurkezpenak ez dau geldiarazoko kobratzeko prozedura, beti be zorra bermatzen ez bada legeak ezarritakoaren arabera.

Bakion, 2018ko otsailaren 5ean.— Alkate andrea, Amets Jauregizar Baraizarra